

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

LURRALDEA ETA KLIMAREN ALDEKO EKINTZAREN SAILA

Plangintza eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzea

Behin betiko onestea Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko erabilera tertziarioko arau partikularrak aldatzeko proiektua, asistentzia-erabileraren bateragarritasuna arautzeko

Hau erabaki zuen udalbatzak 2021eko martxoaren 26an egindako ohiko bilkuran:

Gaia: Behin betiko onestea Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko erabilera tertziarioko arau partikularrak aldatzeko proiektua, asistentzia-erabileraren bateragarritasuna arautzeko.

Erabaki-proposamena

Onetsi nahi den aldaketa udal ekimenekoa da, Hirigintzako zinegotziaren 2018ko ekainaren 15eko ebazpen baten bitartez erabaki baitzen berorren idazkuntza, eta aginduzko txostenak eskatu zitzaizkien Ingurumen Organoari zein Sustapen Ministerioko Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiari.

Proposatutako aldaketaren beharra eta egokiera ekimen pribatuek asistentzia-zerbitzuak ematea ahalbidetzeko interesetik sortzen da, hartara handitzen ari den eskariari hobeto erantzun nahi zaio eta iruzurrezko erabilera zein justifikaziorik gabeko murrizketa saihestu.

Aldaketa honen bidez idazketa aldatu nahi zaio erabilera tertziarioko eraikinen erabilera bateragarriak arautzen dituen Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorren 5.03.33 artikuluko 2. atalari, lursail horietako asistentzia-erabileraren bateragarritasun-baldintzak aldatzeko, eta hori dela eta 4. baldintzaren egungo idazketa aldatzea. Honela dio: administrazio publikoaren menpeko hirugarren adinekoentzako egoitzetan bakarrik baimenduko da asistentzia-erabilera. Horren ordez, hau jartzea proposatzen da: egoitza-izaerako asistentzia-zerbitzuak administrazio publiko eskudunak homologatuta egon beharko dute.

Aldaketaren premia eta efikazia bat datoz lehenago aipatu ditugun haren beharra eta egokierarekin; aldaketaren proportzionaltasuna eta efizientzia xedea lortzeko beharrezko esku-hartze gutxienekoaren printzipiotik eratoritzen da; aldaketaren segurtasun juridikoa eta gardentasuna ezarritako prozeduraren arabera kudeatzearen emaitza izango dira.

Ingurumen-tramitazioari dagokionez, 2019ko apirilaren 24an ingurumen-ebaluazio estrategikoaren hasiera emateko agiria igorri zitzaion ingurumen-organoari, eta urte horretako uztailaren 31n jaso zen zegokion irismen dokumentua. Horri jarraituz egin dira ingurumen-ebaluazio estrategikoa –erantsi egin da, eta aldaketa honen parte da–, aldakuntzaren hasierako bertsioa –ondorioak barne hartzen ditu–, eta Arabako Osasun Publikoaren Zuzendaritzaordetzak eragindako administrazioei kontsulta egiteko fasean egindako oharra.

2019ko uztailaren 30ean, ingurumen-organoak irismen-dokumentua egin zuen, zeinaren arabera egin baita aldaketaren ingurumen-ebaluazio estrategikoa, eta horren hasierako bertsioa. Tokiko Gobernu Batzarrak hasierako onespina eman zion horri 2019ko irailaren 27an, eta urriaren 17an argitaratu zen egunkarietan, eta urriaren 23an ALHAOn. Halaber, ingurumen-arloko prozesuan interesa zutela jotako elkarte eta erakundeei jakinarazi zitzaion, eta 45 eguneko epea ezarri zen alegazio eta oharrek aurkezteko. Elkarte hauek jaso zuten jakinarazpena:

- Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritza.
- Eusko Jaurlaritzako Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritza.

- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondarearen eta Klima Aldaketaren Zuzendaritza.
- Ebroko Konfederazio Hidrografikoa.
- Arabako Foru Aldundiko Ingurumen eta Hirigintza Saila.
- Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Zuzendaritza.
- Ekologistak Martxan.
- Ekozaleak elkarte ekologista.
- GADEN- Natura Defendatu eta Ikertzeko Arabako Taldea.
- Greenpace Euskadi.
- IAN-ANI -Arabako Natur Institutua.

2020ko maiatzaren 13ra arte honakoek aurkeztu dituzte ekarpenak:

- Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen Saileko Erregistro eta Ikuskatzaitza Zerbitzuak.
- Euskal Kultur Ondarearen Zentroak.
- Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak.
- Ebroko Konfederazio Hidrografikoak.

Lehen txostenean bi gauza proposatzen dira; batetik adinekoak hitza erabiltzea hirugarren adina erabili ordez, eta bigarrenik, aurreikusitako homologazio hitzaren ordez baimen erabiltzea agiri honi erantsitako hasierako onespenerako agirian, homologazio hitza erreserbatuta baitago itunpeko edo hitzartutako zentroetarako.

Kontuan hartu da lehena, aldaketa honetan aplikatzekoa ez bada ere, eta onartu egiten da bigarrena, eta horrenbestez idazketa aldatu.

Euskal Kultura Ondarearen Zentroak planteatu du badaudela zati batean presuntzio-eremuen eraginpean egon daitezkeen lursailak, bai eta babes ertain eta oinarrizkoko kultura-ondasun aitorpena merezi duten zenbait higiezin ere, ingurumen-dokumentuan kontrako baieztapena ageri bada ere. Hori dela eta, eraberritze- edo eraikitze-lanak egin nahi badira kultur ondarearen ikuspegitik duten interesagatik babes juridikoa duten lursailetan, aitorpena eman dien xedepeneraren ondoriozko berariazko babes-araudia aplikatu beharko da, eta babes-araubide zehatzik ezean, Kultura-ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legean ezarritako babes-erregimena aplikatuko da.

Gehitu egin da baldintza hau behin-behineko onespenerako egindako memoriaren 4.1.1 artikuluan.

Arabako Foru Aldundiko Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak erabilera tertziario-sailkapena duten lursailak Gasteizko HAPOko babes Erregimen Bereziaren menpeko eraikinetan egotea planteatzen du –Kultur ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 38, 43 eta 45. artikuluek arautzen dute erabilera-aldaketa.

Gehitu egin da erabilera-aldaketaren eta eraikinen erreferentzia hori, hasierako onespenerako idatzitako memoriako baldintzan.

2020ko maiatzaren 15ean, Uraren Euskal Agentziaren aldeko txostena jaso zen, zeini Ebroko Konfederazio Hidrografikoak egindako txostena eransten zitzaion.

Jendaurrean erakusteko epean alegazio bat jaso da, eta horiei buruzko txostena egin du Hirigintza Kudeaketako buruak. Honela dio bertan:

2019ko azaroaren 7an, Baskonia Kirol Hiria, SL eta Deportivo Alavés, SAD sozietateek alegazioa aurkeztu zuten, eskatzeko erabilera tertziarioaren bateragarri izan zedila unibertsitate-ekipamendu erabilera, hezkuntzakoarekin egiten den bezela.

Eskaera honi dagokionez, udal zerbitzu teknikoek kontrako txostena egin dute, eskatutakoa ez dela aldakuntza honen xede jotzen baitute, izan ere, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legeak 56.1 l artikuluan xedatutakoaren ildotik, aldaketa honek izaera xehatua du, tertziario sailkapena duten lurzoruen erabileren bateragarritasun-erregimen baldintzak aldatzera mugatzen baita. Eskatutakoak, berriz, baldintzak aldatzeaz gain, erabileren bateragarritasun-erregimena ere aldatu nahi du, eta horretarako plangintzaren egiturazko aldaketa egin beharra dago (53.2.c artikulua, Ikusi EAEANren otsailaren 3ko 41/2016 epaian xedatutakoa, RJCA 2016\368).

2020ko uztailaren 10ean, Tokiko Gobernu Batzarrak, ohiko bilkuran, behin-behinean onartu zuen aldaketa hori, eta ezetsi egin zuen Baskonia Kirol Hiria, SLk eta Deportivo Alaves, SAD-k egindako alegazioa/eskaera.

Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketa puntual horri dagokion proiektuaren oroitidazkian jasota daude xedea, ekimena, aldaketaren komenigarritasunaren eta egokitasunaren justifikazioa, indarrean dagoen plangintza eta proposatutakoa, eragin soziolinguistikoa, genero-ikuspegiaren eragina, eta behar diren planoak eta dokumentazio grafikoa erantsi zaizkio.

Aplikatzekoak diren legezko arauei dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 61. eta 62. artikuluek zehazten dituzte plangintza orokorraren eduki substantiboa eta eduki hori formulatzeko gutxieneko agiriak. Lege beraren 90. eta 91. artikuluetan, berriz, plangintza orokorra egiteko, izapidetzeko eta onartzeko arauak ezartzen dira.

Premiazko neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretuan —2/2006 Legea garatzen du— 30. artikuluan xedatzen denaren arabera, plangintza orokorrean integraturiko antolakuntza xehatua aldatu egin ahalko da Plan Orokorraren aldaketaren figura baliatuz, besteak beste, eta horretarako 2/2006 Legearen 95., 96. eta 97. artikuluetan araututako prozedura ezartzen du.

Abenduaren 9ko ingurumen-ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen arabera, organo substantiboak jendaurrean jarriko plan edo programaren hasierako bertsioa, ingurumen-azterketa estrategikoarekin batera, informazio publikorako, Estatuko Aldizkari Ofizialean edo dagokion aldizkari ofizialean iragarri ostean, eta, hala badagokio, baita egoitza elektronikoan ere. Informazio publikoa berrogeita bost laneguneko izango da, gutxienez, eta bertan ingurumen-azterketa estrategikoaren laburpen ez-teknikoa ere txertatu behar da.

Udalbatzari dagokio plangintza orokorrari hasierako onespina ematea, eta hirigintza-legedian aurreikusitako antolamenduko planen eta gainerako tresnen gaineko udal izapideen amaiera onestea, Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 123.1.i) artikulua — Tokiko Gobernu Modernizatzeko Neurriei buruzko 57/2003 Legeak erantsia — diosenaren arabera.

Proposatzen den Plan Orokorraren aldaketarekin bat etorritik, dossierrean jasotako hirigintza-agirietan horren beharra eta egokiera justifikatzen delarik, ikusirik aipatutako aginduak nahiz aplikatu beharreko beste guztiak, eta aipatutako legearen 122.4.a) artikuluan aitortzen zaizkion eskumenak baliaturik, Lurralde Batzordeak erabaki hau har dezala proposatzen dio Gasteizko Udaleko udalbatzari:

Erabakia

1. Atzera botatzea Baskonia Kirol Hiria, SL. eta Deportivo Alavés, SAD-k aurkeztutako alegazio/eskaria, arestian adierazitako arrazoien haritik.

2. Behin betiko onestea Lurraldearen eta Klimaren aldeko Ekintzaren Saileko Plangintzarako eta Hirigintza Antolamendua Gauzatzeko Zerbitzuak egindako Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorrako erabilera tertziarioko arau partikularrak aldatzeko — asistentzia-erabileraren bateragarritasuna arautzeko — proiektua.

3. Erabaki hau eta aipatutako aldaketaren hirigintza-arauak ALHAOean argitaratzea, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 89.5. artikuluan eta martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 7. artikuluan xedatutakoaren ildotik.

4. Erabaki honen kontra, amaiera ematen baitio administrazio-bideari, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da zuzenean Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legearen 46.1 artikuluekin bat etorritz.

Dosierreko dokumentazio tekniko esteka honetan dago eskuragarri: www.vitoria-gasteiz.org/hapoa-asistentziaerabilera.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko apirilaren 16an

Alkate-lehendakaria
GORKA URTARAN AGIRRE